

2008-06-12ko PRESAZKO EZOHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta zortzigarren urteko ekainaren hamabian, arratsaldeko 20:30etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, presazko ezohizko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea –Marimi Ugalde Zabala andrea– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Eugenio Loidi Garmendia jauna, Jose Luis Olano Zubeldia jauna, Agustin Zubeldia Iraola jauna eta M. Jesus Otaño Zumeta andreak.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute: Gregorio Lasa Etxezarreta jaunak eta Aitor Lasa Olalde jaunak.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENBIZIKO GAIA

BILKURAREN PRESAZKO IZAERA BERRESTEA.

Deialdiaren gai nagusiaren garrantzia eta interes publikoaren pisua kontuan hartuz, Udalbatzak aho batez erabaki du Bilkuraren presazko izaera onartzea.

BIGARREN GAIA

AURREKO AKTAK ONARTZEA (08/06/03).

2008ko ekainaren hiruko ohizko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, aho batez erabaki du Udalbatzak hau onartzea.

HIRUGARREN GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, OBRAK PRESAZKO LEHIAKETA IREKI
BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN
AGIRIA, IRURAKO UDAL FRONTOIAREN INGURUA
BERURBANIZATZEKO (LEHEN FASEA).

Udal hau Kiroldedia eta Zilar kaleko ingurua fase ezberdinetan egikaritzen ari da. Aurrikuspenen arabera, eta jasaten ari den garapena kontuan hartuz, hurrengo ikastarotik aurrerantzean gune horren erabilpena gaur egun duena baino dezente handiagoa izango da, beraz, orain gune horren urbanizazioa egin beharra ikusten da. Lan hauek burutu eta lehenbailehen gunearen irekiera kondizio egokietan egiteko (urriko kilometroak gainean dago, hurrengo ikasturtearen hasiera, etab.) urbanizazio lanak aurrera eramateko asmoa du Irurako Udalak.

Obra kontratu honen beharra eta egokitasuna argiak dira herriaren, hots, interes orokorraren, garapen eta beharrak asetzeko aurrera eramaten den egitasmoa den aldetik; honela, **Urriaren 30eko, 30/2007 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak** 22 artikuluan ezartzen duen ezaugarriak argiro betetzen dira.

Urriaren 30eko, 30/2007 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak arautua eta Erregimen Lokaleko Legediak izendatzen dituzten ahalmenak kontutan hartuta, 64/08 Alkatetza dekretuaren bidez Irurako udal frontoiaren ingurua berurbanizatzeko proiektua idatzi eta lan hauen obra zuzendaritza, ASMATU, S.L.-ri esleitu zitzaion (urbanizazioaren exekuzio proiektua, obraren zuzendaritza, segurtasun estudioa eta obrako segurtasun koordinazioa).

Urriaren 30eko, 30/2007 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak 96 artikuluan ezartzen duenez, presazko tramitazioa egitea posible da organo kontratatzaileak espedientea hala izendatzen badu. Espedientearen tramitazioa presazkoa izendatu ahal izateko, esleipenari azkartasuna emateko interes publikozko

arrazoiak egon behar dira medio. Kasu honetan interes publikoa badagoela esan daiteke:

- Datorren irailean, ikastaro berria hasiko da amaitzear dagoen ikastolaren eraikuntza berrian. Egunero bertaratuko diren haur eta nerabeen segurtasuna bermatzea behar beharrezkoa du Udal honek. Kontuan hartu beharra dago gaur egun bertara inguratzeko espaloi egokirik ez dagoela eta ibilgailuen etengabeko zirkulazioa izaten den ingurua dela.
- Urriko lehen igandean, Kilometroak'08 Iruran ospatzen da eta ibilbidea toki horretatik igaroko da, hots, gutxi gora behera 80.000 pertsona bertatik igaro daitezke. Hauen segurtasuna bermatzea Udalaren lana da eta egun horretarako inguru hori txukuntzea, segurtasun hori eskaintzeko bidea.
- Aipatutako egun horretan Euskal Herriko komunikabide gehienetan Irurako herria albistearen parte izango da, honenbestez, itxura ona ematea beharrezkoa da, bai estetikoki, bai funtzionalki.
- Etab.

Bestalde, Irurako Udaleko web orrialdea eraberritze prozesuan sartua dagoenez, eta Urriaren 30eko, 30/2007 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak arautzen duen baliabide informatikoen erabilera gaur egun ezinezkoa denez, ohizko bideen erabilpenarekin egin beharreko lehiaketa dela nabaria da, uneoro interesdun guztien eskubideak bermatuz.

Aurreko guztia ikusirik, idazkariaren txostena kontuan hartuz eta ASMATU S.L.ek egindako egitasmoan oinarrituz, Udalbatzak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen du:

Lehena.- Interes orokorreko hainbat arrazoi medio direlarik, espedientearen presazko izapidetzea beharrezkoa dela berrestea.

Bigarrena.- Onartzea, Irurako Udal frontoiaren inguruaren berrubantazio lanen lehen fasea kontratatzeko presazko lehiaketa arautuko duten administrazio-baldintza zehatzen agiria.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 20:45etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.